

[Inicio](#) > [Ocio y cultura](#) > [Cultura](#)

Kalean da Asel Luzarragaren azken eleberria

TXALAPARTAK KALERATU DU ETA BERE ELEBERRI "IDEOLOGIKOENA" DELA AITORTU DU IDAZLE BILBOTARRAK

ANDER EGILUZ BERAMENDI - Sábado, 30 de Octubre de 2010 - Actualizado a las 04:45h.

 ☆☆☆☆☆ ivota! | [icomenta!](#)

 compartir ([¿qué es esto?](#))


BILBO. Nobela berria kaleratu du Asel Luzarragak, Txalaparta argitaletxearen eskutik. Txilen bizi izan duen amesgaiztoaren ostean -preso izan zuten inkoherentziaz beteriko epaiketa baten ondorioz-, idazlearen lan berria *Utopiaren itzalak* izena eramateak galdera asko eragiten di-tu. Baina, atzoko prentsa aurrekoan, ezeztatu zuen azken eleberriaren eta Txileko bizipenen arteko lotura: "Ez dut horri buruzko ezer sartu, nahiz eta gartzelan bukatu nuen idazten".

Bosgarren eleberria du Luzarragak honako hau eta, bere esanetan, "orain arteko nobelarik ideologikoena da". Askotan aitortu du idaz-leak bere pentsakera anarkista eta, horixe oinarrian izanda, intrigazko istorio batekin mozorrotu du "orain lau urte garatzen hasi nintzen liburua". Eleberri bizia, nobela beltzatik gertu kokatu daitekena eta zazpi pertsonaia baino ez dituen -horietatik hiruk hilda ematen dute nobela osoa- da Luzarragak osatu duena. Kapitalismoaren aurrean belaunikatu den mundua zorrotz kritikatzeko idazleak -"Bilboko bizitza maila Afrikara esporta genezake? Ez dago baliabiderik", iritzi zion aurkezpenean.

METAFORAZ BETEA Aurreko lanetan zelan, modu berean erabaki ditu istorioko lagunak izenak Aselek oraingoan. Guztiek daukate bigarren esangura bat eta denek izkutatzen -edo islatzen- dute errealitate bat. Josu da protagonista -Es-korbutoko musikariaren omenez- eta *jonkia* da. "Gizarte honen metafora da Josu; heroinaren mende da-go bera eta kontsumismoaren menpe gizartea". Drogak utzi nahian, desintoxicazio zentzura doa pertsonaia nagusia eta, handik ateratze-an, Artur osabarekin batuko da. Bi-zitza berri horretan laguntzen saiatuko da Artur, Laurita boliviarrarekin batera. Baina bidean, iraganeko itzalak behin eta berriz itzuliko zaizkio. Hildako ama, lagun eta neska ohiarekin gain, bere buruarekin izango ditu berbaldi luzeak protagonistak. Intrigazko nobelaren larrupean, gogoeta sakona.

Vista:

[Más texto](#)
[Más visual](#)
